

**COVID 19.- UDAL LAGUNTZAK OSTALARI,  
Merkatari eta Ostatu Turistikoei  
Zuzendutakoak.**

**OINARRIAK**

COVID- 19-aren ondorioz, herriko ostalaritza, merkataritza eta ostatu turistiko sektoreei zuzendutako laguntzak bideratzea erabaki du Aiako Udalak. Horrela, kolpatuenetarikoz izan diren jarduerari, jasandako galerei neurri batean aurre egiteko.

**1.- Helburua.**

Deialdi honen helburua da ostalaritza, merkataritza eta ostatu turistiko jarduerari zuzendutako diru laguntzen esleipena arautzea, COVID-19ak sortu dizkien kalteei aurre egiteko laguntza modura.

**2.- Dirulaguntzaren kopurua.**

Dirulaguntza hauek bideratzeko, Udalak bere aurrekontuetatik 25.000 euroko kopurua bideratuko du.

**3.- Lagunduko diren jarduerak.**

Diruz lagunduko diren jarduerak honakoak dira:

**a) Ostalaritza:**

2020ko otsailaren 29ko datuz kontratatu zituen langile guztien lan orduak kontuan hartuko dira.

0 eta 40 lan ordu/hileko: 400€

40 eta 80 lan ordu/hileko: 700€

80 eta 120 lan ordu/hileko: 900€

120lan ordu/hileko baino gehiago: 1.200€

**b) Ostatu turistikoa:**

2020ko otsailean zuten bezero kopuru muga:

0-10 pertsona bitartekoa: 200€

11-20 pertsona bitartekoa: 400€

20 pertsona baino gehiago: 600€

**c) Merkataritza:**

2020ean denbora batean bada ere, itxita egotera behartuta egon ziren negozioak (eremu urbanoen kokalekua dutenak): 400€.

**4.- Onuradunek bete behar dituzten baldintzak.**

Eskaera aurkeztean onuradunek Aiako Udala, Urola Kostako Udal Elkarte, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Gizarte Segurantzako diru zaintzarekiko bete beharrak egunean dauzkatela egiaztatu beharko dute eta baita.

**5.- Eskaerak eta dokumentazioa.**

Eskaera, establezimenduaren titularrak edo bere legezko ordezkariak aurkeztu beharko du, Udalak osatutako eskabide-ereduaren arabera. Eskabide hau [www.aia.eus](http://www.aia.eus) web orrian eskuratu daiteke.

Oinarrien laugarren atalean ezarritako dokumentazioarekin batera, jarduera bakoitzeko eskaerak honako dokumentazioa aurkeztu beharko dute:

- a) Ostalaritza: 2020ko otsailaren 29ko dataz zituen langile guztien zerrenda ordu kopuruarekin.
- b) Ostatu turistikoak: 2020ko otsaileko dataz gehieneko bezero kopurua adierazten duen dokumentua.
- c) Merkataritza: Dagokion aginte organoak ezarritako itxialdiaren data.

**6.- Eskaerak aurkezteko epea.**

Eskaerak aurkezteko epea, martxoaren 29tik apirilaren 30a bitartean irekiko da, biak barne. Eskaerak [harrera@aia.eus](mailto:harrera@aia.eus) helbide elektronikora edo erregistro elektronikoko bidez ere aurkeztu daiteke.

**7.- Diru laguntza emateko prozedura.**

Laguntzak lehiarik gabeko konkurrentzia prozedura erabiliz emango dira aipatu baremoak kontuan hartuta.

Nahiz eta titularra bat izan, aukera izango du arlo desberdineko diru laguntza eskatzea.

Emateari buruzko behin betiko ebazpena Aiako Udaleko web-gunean argitaratuko da ([www.aia.eus](http://www.aia.eus)).